Bi aldiz jaiotzea: biziraupenaren eta maitasunaren artean

Michael Perez
1992an jaioa, Bulgarian
2003an Gipuzkoan adoptatua

Bi munduren artean hazi nintzen: 10 urte nituela adoptatua izan nintzen, eta ordutik aurrera herrialde berri batean, hizkuntza berri batean, kultura berri batean eta bizitza ulertzeko beste modu erabat desberdin batean bizitzen ikasi behar izan nuen. Nire gurasoentzat adopzioa hasieran irudikapen edo ideia bat besterik ez zen eta, denborarekin, gu hiruron artean eraikitako bidaia sakon eta gizatiar bat bihurtu zen; liburuek eta gidek azaldu ezin dituzten ikasketez betetako bidea.

Bidean abandonuaren zauriekin bizi izan nintzen, nire burua gizon gay bezala onartzeko eta onartua izateko zailtasunekin, besteen onespena etengabe bilatzeko beharrarekin, eta isilean pairatutako osasun mentaleko arazoekin eta elikadura nahasmenduekin. Urte askotan etxe deitu nezakeen leku baten bila ibili nintzen; ulertua, onartua eta nahikoa sentitzeko espazio baten bila.

Elkarrekin ikasi dugu adopzio berantiarra ez dela istorio perfektu bat, baizik eta baldintzarik gabeko presentzian, pazientzian eta unerik gogorrenetan ere iraun duen maitasunean eraikitzen den zerbait

Baina ekaitz haiek guztiek ez ninduten hautsi: eraldatu egin ninduten. Eta gaur nire burua harrotasunez eta beldurrik gabe onartzen badut, nire adopzio bidezko gurasoak inoiz nire alboan egoteari utzi ez ziotelako da. Nahiz eta askotan inork ez jakin nola aurre egin bizitzak ekarri zigun bide zail hari. Elkarrekin ikasi dugu adopzio berantiarra

ez dela istorio perfektu bat, baizik eta baldintzarik gabeko presentzian, pazientzian eta unerik gogorrenetan ere iraun duen maitasunean eraikitzen den zerbait. Eta agian ederrena honakoa da: odola partekatu gabe ere, haien antz handia hartu dut. Nire amaren indarra eta sentikortasuna nire izaeran bizi dira, eta nire aitari ikasitako keinu eta modu asko nire baitan daramatzat gaur egun ere. Beraz, bai, ama eta aita: logika guztien gainetik, zuen geneak heredatu ditut.

